



Fitxa honetan, perpaus osagarri jokatugabeak izango ditugu berriro aztergai [ikus, *Perpaus osagarri jokatugabeak(I)*]. Horrelako perpausen erabilera oker edo badaezpadako batzuez jardungo dugu batik bat.

Fitxa hau osatzeko, aurrekoan bezala, **EUSKAL GRAMATIKA: LEHEN URRATSAK-VII (perpaus jokatugabeak)** liburua izan dugu oinarri.





EZIN...IZATEA / *EZIN...-TZEA

Aditza *EZIN IZAN* da (ez *EZIN* soilik) —*behar izan, ahal izan eta nahi izan* aditzen ereduakoa, alegia—, eta harekin -TZEA perpausaosatzean ez da zuzena *izan* aditza kentzea.

- Hala ere, gerta daiteke bien artean lotura estua izatea, eta bata bestea gabe **ulertu ezin izatea**.

(*...eta bata bestea gabe ezin ulertzea.)

- Datu optikoak erraz neurtzen dira, baina baliteke nahi diren propietate optiko guztiak **ezin neurtu izatea**.

(*...optiko guztiak ezin neurtzea.)

EZIN...IZATEA perpausaren ordeaz, -TU EZIN(a) perpausa erabil daiteke:

- Pertsonaia bati bestearekin zuen lotura **berreskuratu ezinak** eragiten dion desesperazioa azaltzen dute filmek.
 - Pertsonaia bati bestearekin zuen lotura **ezin berreskuratu izateak**...



EZ EGON, EDUKI...-TZERIK / BA+EGON, EDUKI...-TZEA (-TZERIK)

EZ DAGO HORI EGITERIK

Zerbait egiteko ezina edo eragozpena adierazteko erabili ohi da esapide hau:

- Zuntz-itxurako sustrai-sistema heldu batean, **ez dago bereizterik** zein den ardatz primarioa.

- (...) ezin da bereizi zein den...
- (...) ez dago modurik...bereizteko

- Estatistikari bati datu sorta bat ematen badiozu, hark **ez dauka jakiterik**, datuei begiratuta, zure erreplikak independenteak diren ala ez.

- (...) ezin du jakin, datuei...

BADAGO HORI EGITERIK

Esapide honek ez du tradizio handirik zerbait egin daitekeela adierazteko, nahiz eta ahozko jardunetan zabaltzen ari den:

- (?) Edonork, zalantza izanez gero, **badauka** hemerrotekara **joatea/joaterik**.



-TZEA EDUKI/UKAN

Bada, ordea, aurreko fitxan badaezpadakotzat jo den egituraren antzeko bat:

- Kexatu beharrean, dagokionari **idaztea daukazu** arazoa konpontzeko.

Baina haren bidez ez da, berez, zerbait egiteko ahala edo gaitasuna adierazten, baizik halako gaitzespena (kexa) —zerbait ez delako egin— edo aginduaren eta nahiaren arteko nahasketa.

- Kexu zen afarian opil guztiak jan genituelako. Etort**zea zeukan!**
(Ez etorri izana aurpegiratzen zaio: Zergatik ez zen etorri? Etorri balitz, opilak jango zituen.)
- (...) eta destainaz erantzun zion ... Aholku bat emango dizut: zeretik sart**zea daukazu** izenpea. (Nahiaren eta aginduaren arteko halako nahasketa.)

Gauzen ordena naturala, Lobo Antunes Antonio; Iñigo Roque (itzul.), Alberdania / Erein / Igela, 2013



-TU NAHIAGO IZAN/ -TZEA NAHIAGO IZAN¹

Bata edo bestea erabiltzeko, *nahi izan* aditzean bezala, erreferentziakidetetasuna² hartu behar da aintzat:

-tu nahiago izan: [+ erreferentziakideak]

- Elkarrizketa hasi baino lehen, parte-hartzaileei esaten diet gezurra **esan nahiago badute** gezurra esateko.

- parte-hartzaileek nahiago izan
- parte-hartzaileek esan

-tzea nahiago izan: [- erreferentziakideak]

- Gurasoek **nahiago izaten zuten** semeek ikastea eta alabek etxean lan egitea.

- gurasoek nahiago izan
- semeek ikasi / alabek lan egin

Hala ere, bereizketa hau ez da *nahi izan* aditzarekin bezain zorrotz betetzen, eta maiz -TZEA perpausa erabiltzen da nahiz eta [+errefentziakidetetasuna] egon; batez ere, perpaus jokatugabea luzea denean.

- Gabardina daramaten guztiak berdinak direla **pentsatzea nahiago izan nuen.**

Ez zen diruagatik, Ana Jaka, Elkar 2014

- *nik* nahiago izan
- *nik* pentsatu

(¹-tu gurago izan / -tzea gurago izan.)

(² Bi perpausok -osagarriak eta nagusiak- subjektu bera edukitzea edo ez.)



-TU HOBE IZAN/ -TZEA HOBE IZAN

-TU perpausaz balia gaitezke erreferentziakidetasuna markatzeko:

-tu hobe izan: [+ erreferentziakideak]

• Eskerrik asko, baina **hobe dut** lehengo bizimodura itzuli.

- *nik* hobe izan
- *ni* itzuli

• Tira, **hobe dut** hartaz gaizki ez **hitz egin**, preso baitago, eta hainbat urtez egonen da.

Pantaleon eta bisitariak, Mario Vargas Llosa; Santi Leone (itzul.) Elkar, 2011

• Pixka bat gehiago lan egin nahi ez badu diru gehigarri baten truke, **hobe du** lana **utzi**.

Litxarreroak, Thompson, Jim; Miel A. Elustondo (itzul.) Igela, 2013

-tzea hobe izan: [± erreferentziakideak]

• **Hobe duzu** den-dena kontat**zea**.

- *zuk* hobe izan
- [+ erref.] *zuk* kontatu

• Eta **hobe duzu** kontatu diguzun guztia egia izat**ea**.

- *zuk* hobe izan
- [- erref.] *guztia* egia *izan*

Esaldia behar bezala interpretatzeko beharrezko informazioa testuingurutik eskuratu edo ondorioztatu behar dugu.



ZERRENDETAN -TU ALA -TZEA?

Testuetan, sarritan, ekintza-, jarduera- edo egoera-zerrendak aipatzen dira, eta horietan, zenbaitetan, okerrez (gaztelaniaren eraginez, nonbait), -TU perpausa erabiltzen da -TZEA perpausa behar denean:

-Helburuak hauek dira:

- oinarrizko informazioa emate**a**,
- futzionamendua ezagutarazte**a** eta
- erabilera garrantzitsuenak aipatz**ea**.

-Estrategia:

- bigarren jokalaria izate**a** eta
- lehenengo jokalaria eginiko bera errepikat**zea**.

-*Substantzia bat mugatzeko moduak:

- eremu magnetiko indartsu baten eraginpean jarri,
- korrante elektriko sendo baten eraginpean jarri, edo
- urtu eta eremu magnetiko baten eraginpean hozten utzi.

Egitura "arrunt"ean zer perpaus (-TZEA ala -TU) erabiliko genukeen, horixe jarri behar dugu zerrendan:

- Helburua oinarrizko informazioa emate**a** da. (* Helburua ... eman da.)
- Substantzia bat mugatzeko modu bat da ... magnetiko indartsu baten eraginpean jart**zea**.



ZERRENDETAN -TU ALA -TZEA?

Baina, kontuz, horrek ez du esan nahi guzti-guztietan -TZEA perpausaz baliatu behar dugunik zerrendetan: *behar izan* aditza isildurik dagoenean, edo testuingurutik ondorioztatzen bada aditz hori behar dela perpaus osoa agertuz gero, orduan -TU perpausa erabiliko dugu zerrendan:

-Kronograma

- urriaren 6tik 13ra: informazioa **bildu**,
- urriaren 13tik 20ra: edukia **adostu** eta **banatu**,
- urriaren 20tik 27ra: testuaren lehen orriak **idatzi**,
- ...

-Kronograma

- urriaren 6tik 13ra: informazioa **bildu behar da**,
- urriaren 13tik 20ra: edukia **adostu** eta **banatu behar da**,
- urriaren 20tik-27ra: testuaren lehen orrialdeak **idatzi behar dira**,
- ...